

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2018ko azaroaren 29an aurkeztuko du

Diana Thater: *Mundu bat ihesean*

Diana Thater: *Mundu bat ihesean*

- Datak: 2018ko azaroak 29–2019ko martxoak 3
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

Azaroaren 29tik 2019ko martxoak 18 arte, Guggenheim Bilbao Museoak *Diana Thater: Mundu bat ihesean* erakusketa aurkeztuko du. Bertan bildutako lanak Diana Thater (San Frantzisko, 1962) kaliforniarrarenak dira; artista aitzindaria izan da bera, bideoinstalazioari eta mugimendudun irudiei teknologia berriak aplikatzeari dagokionez. Hirugarren eta azken erakusketa da hau Film & Video aretoaren 2018ko programazioan; horren bitartez, Guggenheim Bilbao Museoak bideoarte, bideoinstalazioa eta mugimendudun irudia lengoaia artistiko gisa darabilten artelanen gakoak aztertzen ditu.

Diana Thater artistaren artelanek obrek elkarrizketak proposatzen dituzte artearen historiako gertaera gogoangarri nagusiekin —inpresionismotik minimalismoraino—, kultura garaikidearen gai larrienei aurre egitearekin batera. Film & Video aretoan hiru pieza aurkeztuko ditu Thaterrek, guztiek ere bere obran funtsezkoa duen gaietako bat esploratzen dutela: animalien bizi-baldintzak, giza jardunaren ondorioz. Lan horietako bi instalazio bikiak dira, berriki Kenyan ekoiztutakoak. Biek ala biek erakusten dituzte desagertzeko arriskuan dauden bi espezieren bizitza eta habitatak, errinozero eta elefanteenak hain zuzen; era berean, animalia horien biziraupena mehatxatzen duten arriskuak ere agerian jartzen dituzte artelanek.

Errealiteatea bezain erradikala (2017) lanak gertutik behatzen du Sudan, bideoa grabatu zen unean munduan bizi zen azken errinozero zuri arra, Ol Pejeta erreserbako zaintzaileen babespean. *Mundu bat ihesean* (2017) lana da erakusketari izenburua ematen diona, eta elefante-talde bat agertzen du haren habitatean, Kenyako Chyulu muinoetan. Bi artelanek baliatzen dute begirada hotz, deskribatzaile eta batzuetan alderraia; isilpean behatzen dituzte beren objektuak, eta horiek planetan duten existentzia, eta haien hur-hurreko desagerpena, kontuan hartuz gaituzte. Instalazio bakoitzak paisaia eta erretratu izaera ditu, eta bi proiektziok osatzen dute, bi aldeetatik argizatutako bi pantailaren elkargunearen gainean. Egitura horiek aretoaren erdian daude, eta argi-filtro koloretsuen bidez aldatuta ageri dira. Filtro horien ondorioz, aretoaren lurraren kolorea aldatzen da, baita pantaila bakoitzaren isla ere albokoen gainean.

Thaterrek elkar-eragin horiekiko duen interesa indar berberaz ageri da *Denbora konprimatua* (2017) lanean, erakusketaren atarian. Horma-bideo honek ere animalia-talde bati erreparatzen dio kolokan dagoen haien habitatean, Chyulu muinoetan. Lanean ohikoa duen modalitatea baliatuz, artistak elementu abstraktuak eta deskribatzaileak gainjartzen ditu, egun bateko hainbat une begizta labur bakarrean biltzeko. Kolore hutseko planoak eta irudi dokumentalak aurrez aurre ipintzeaz gain, hainbat osagai bisualen arteko erritmo eta harremanek erronka luzatzen diete ustezko errealismoa darien irudi dokumentalei.

Diana Thaterren berezitasunen artean dago erakusketa gunean argia manipulatzeko, espazio inguratzaileak eta kolorez beteak sortzeko, artelanak hartzen dituen arkitektura biziki eragiteaz gainera.

Inguru horiek iradoki egiten dute artistak “zientzia eta magiaren arteko tentsio” deritzona: irudiaren objektibotasuna eta begiradaren subjektibotasuna kontrajartzea; “errealitatea bezain erradikala” den esperientzia, edertasunaren kontenplazioa eta espiritu kritikoa tarteko.

Behatzeko giza desiraren eta bestearen identitatea irudikatu edo eraikitzeke beharraren arteko kontraesana esploratzeko helburuz ekoizten ditu irudiak Diana Thaterrek. Bere lanetan, kamerari eusten dion artistaren presentzia errepikakorrak gogora ekartzen dizkigu filmatzearen ekintzak dituen inplikazio etikoak. Era berean, artistaren instalazioek zorroztasunez seinatzen dituzte ikusi eta begiratzearen arteko desberdintasunak. Ekosistema gisa aurkezten zaigu pieza bakoitza; bertan, azalera, bolumenak, soinuak eta atmosferak batera bizi dira hainbat espezie bizidunen oroimen historiko, zeinu eta keinuekin.

Diana Thater. Biografia

Diana Thater (San Frantzisko, 1962) artista Los Angeles (Kalifornia) hirian bizi da, eta bertan egiten du lan. 1986an Arte Historian graduatu zen New Yorkeko Unibertsitatean, eta 1990an, Pasadenako Art Center College of Design-en. Artista instalazioaren aitzindaria izan da, eta mugimenduan dagoen irudiaren teknologia berriak bideoaren eta zinemaren narrazio-konbentzioei aurre egiten dieten formekin konbinatu ditu.

Era berean, nazioarteko museo eta erakunde ugarian egin ditu bakarkako erakusketak: hala nola, Borusan Center for Contemporary Art, Istanbul; The Mistake Room, Los Angeles; San Jose Museum of Art; Aspen Art Museum; Fonds regional d'art contemporain Bourgogne, Dijon; Santa Monica Museum of Art; Dia Center for the Arts, New York. 2015ean, Los Angeles Country Museum of Art (LACMA) erakundeak artistaren atzera begirakorik handiena antolatu zuen, ondoren Museum of Contemporary Art Chicago-ra joango zena: *The Sympathetic Imagination*.

Topaketak artistekin: Diana Thater (azaroak 29, 18:30)

Azaroaren 29an, 18:30ean, Guggenheim Bilbao Museoko Film & Video aretoan, Diana Thaterrek Manuel Cirauquirekin hitz egingo du bere sormen-prozesuaz eta *Mundu bat ihesean* erakusketan bildutako obrei buruz. Hitzaldiaren ondoren, mahai-inguru bat egingo da bertaratzen direnekin.

Bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimenduan dagoen irudiari eskainitako espazioa da Film & Video aretoa, eta Guggenheim museoetako eta beste nazioarteko bilduma batzuetako obrak hartzen ditu. 2014ko martxoan ekin zitzaion areto honetako programazioari, Christian Marclayen *Erlojua (The Clock)* instalazioarekin. Horren atzetik, beste asko etorri dira: Ragnar Kjartansson artista islandiarraren *Bisitariak (The Visitors)*, eta Rineke Dijkstraren *The Krazyhouse (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee)*, Liverpool, UK; 2015ean, Kimsooja artista kontzeptualaren *Hariaren bideak (Thread Routes)*, Shahzia Sikanderren *Paralajea (Parallax)*, eta Ho Tzu Nyen artista singapurtarraren *Ezjakintasunaren hodeia (The Cloud of Unknowing)*; 2016an, Eija-Liisa Ahtila artista finlandiarraren *Deikundea (The Annunciation – Marian Ilmestys)*, Sam-Taylor Johnsonen *Hasperena (Sigh)*, eta Fiona Tanen *Desorientatzea (Disorient)*; eta, 2017an, Pierre Huyghe artista frantziarraren (*Izenbururik gabe*) *Giza maskara [(Untitled) Human Mask, 2014]*, baita *underground* zinemaren aitzindari izandako Ken Jacobsen *Gonbidatuak (The Guests)*, eta Amie Siegel artistaren *Negua (Winter)* instalazio-performancea. 2018an Michael Snowren *Zirkuito itxia (closed circuit)* eta Javier Téllez-en *Itzal antzerkia (Teatro de sombras)* izan dira.

Azaleko argazkia:

Diana Thater

Diana Thater: *Mundu bat ihesean* instalazioaren ikuspegia Guggenheim Bilbao Museoan, 2018

Eskumatara: *Mundu bat ihesean*, 2017

Instalazioa bi bideo-proiektoreekin, bi multimedia erreproduzigailu eta Altuglas Visio pantailak

182,9 x 325,1 x 325,1 cm

Honen eskaintza: artista eta David Zwirner, New York/Londres/Hong Kong

Ezkerretara: *Errealitatea bezain erradikala*, 2017

Instalazioa bi bideo-proiektoreekin, bi multimedia erreproduzigailu eta Altuglas Visio pantailak

182,9 x 325,1 x 325,1 cm

Honen eskaintza: artista eta David Zwirner, New York/Londres/Hong Kong

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
Diana Thater: *Mundu bat ihesean*
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoki bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Diana Thater

Mundu bat ihesean, 2017

Instalazioa bi bideo-proiektoreekin, bi multimedia erreproduzizailu eta Altuglas Visio pantailak

182,9 x 325,1 x 325,1 cm

Honen eskaintza: artista eta David Zwirner, New York/Londres/Hong Kong



Diana Thater

Errealitatea bezain erradikala, 2017

Instalazioa bi bideo-proiektoreekin, bi multimedia erreproduzizailu eta Altuglas Visio pantailak

182,9 x 325,1 x 325,1 cm

Honen eskaintza: artista eta David Zwirner, New York/Londres/Hong Kong



Diana Thater

Denbora konprimatua, 2017

9 monitoreko horma-bideoa

Guztira: 182,6 x 323,9 x 11,4 cm

Honen eskaintza: artista eta David Zwirner, New York/Londres/Hong Kong



Diana Thater

Diana Thater: *Mundu bat ihesean* instalazioaren ikuspegia Guggenheim Bilbao Museoa, 2018

Eskumatara: *Mundu bat ihesean*, 2017

Instalazioa bi bideo-proiektoreekin, bi multimedia erreproduzizailu eta Altuglas Visio pantailak

182,9 x 325,1 x 325,1 cm

Honen eskaintza: artista eta David Zwirner, New York/Londres/Hong Kong



Ezkerretara: *Errealitatea bezain erradikala*, 2017

Instalazioa bi bideo-proiektoreekin, bi multimedia erreproduzizailu eta Altuglas Visio pantailak

182,9 x 325,1 x 325,1 cm

Honen eskaintza: artista eta David Zwirner, New York/Londres/Hong Kong